

SARRERA

<u>I. EKINTZA POLITIKORAKO ILDOAK</u>	4
<u>1. Feminismoa Ahal Dugun</u>	4
<u>2. Nondik alda ditzakegu politika feministak?</u>	4
<u>3. Gure eztabaidak Ahal Dugun</u>	4
<u>4. Eskubide horiek hainbat esparru sozialekin eta erakundeekin lan eginez lortzen dira</u>	4
<u>5. Zaintzarako eskubidea</u>	5
<u>6. Kontziliaziarako eskubidea</u>	5
<u>7. Pobreziaren feminizazioaren kontra</u>	5
<u>8. Feminismoa eta ekologia</u>	6
<u>9. Feminismoak etxebizitzaren krisiaren aurrean</u>	6
<u>10. Feminismoak beste hiri eta herri batzuk irudikatzen</u>	6
<u>11. LGTBIQA+ feminista</u>	7
<u>12. Trans legea eta LGTBI eskubideena</u>	7
<u>13. Feminismoa eta arrazakeria</u>	8
<u>14. Bakearen aldeko feminismoak.</u>	8
<u>15. Matxista izateari utzi nahi diogunontzako feminismoa</u>	8
<u>16. Feminismoa gaur egungo gazteengan?</u>	9
<u>17. Feminismoa edo lurralde-identitatea?</u>	10

SARRERA.

Ahal Dugu alderdian berretsi egiten dugu indarkeria matxistaren aurkako borrokarekiko dugun konpromiso sendo eta etenezina, gure gizartearen gaitz handienetako bat baita. Biktimak babestuko dituzten eta txikitatik berdintasunean oinarritutako hezkuntza sustatuko duten politika publiko integralen aldeko apustua egiten dugu. Emakumeei soilik eragiten ez dieten kontziliazio-neurriak

bultzatzen ditugu, eta, horretarako, berdintasunezko baimen besterenezinak sustatzen ditugu. Bizitza lehenesten duen lanaren antolaketa defendatzen dugu, zainketekin bateragarriak diren lanaldiekin. Esparru guztietan aldarrikatzen dugu emakumeen ikusgarritasuna, batez ere politikan, zientzian eta kulturaren. Gure proposamen feminista zeharkakoa eta eraldatzailea da. Ez dugu atzerapausorik onartzen, ezta diskurtso ukatzailerik ere. Berdintasuna eskubide bat da, ez aukera bat. Soilik feminismoarekin dago erabateko demokrazia. Ahal Dugu borroka egiten dutenen alde dago, eta alde egongo da beti.

I. EKINTZA POLITIKORAKO ILDOAK

1. Feminismoa Ahal Dugun

Feminismo terminoa aldatu egin da gure ibilbideari ekin genionetik gaur egun arte. Erakundeetan egindako lanari esker, inor gutxi pentsa zezakeen moduan aldatu da. Gizartea eraldatzeko gaitasun handiena duen mugimendu politikoa da feminismoa, eta horregatik da Ahal Dugu alderdiaren jardueraren ardatz egituratzailea.

Gizarte-egitura aldatu behar da, gizarteak jadanik ezin du patriarkala izan. Horrek esan nahi du boterea beste modu batean hartu behar dela kontuan: modu kolaboratiboan, eta ez jabetza bat balitz bezala.

Gobernu-ekintza osoan eredu izan genuenari esker, hiru lege atera genituen aurrera: 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa; 1/2023 Lege Organikoa, otsailaren 28koa, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa aldatzen duena; eta 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorra eta LGTBI kolektiboaren eskubideak bermatzen dituena.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako Plan Estrategikoa (2022-2025); edo Indarkeria matxistei aurre egiteko Estatu Estrategia 2022-2025. Gobernu-ekintza horren guztiaren ondorioz, Genero Berdintasunerako Europako Institutua sortu zen. Ahal Dugu feminismoa egiten aritu delarik Gobernuan, Espainia ispilu feminista bihurtu da eta europar herrialde guztiek nahi dute bertan begiratu.

2. Nondik alda ditzakegu politika feministak?

Berdintasun Ministeriotik abiatu da herrialde feministago baten aldeko bultzada demokratikoa, botere exekutiboa bezalako erakunde bat gizartearen eraldaketa feministaren zerbitzura aritu dadin egunero, gure egunerokoan.

3. Gure eztabaidak Ahal Dugun

Agerikoak dira: sexu-askatasuna pertsonen eskubidea da; erasotzaileen zigorgabetasunarekin amaitzea; emakumeak dira Trans emakumeak; abortua emakumeen oinarrizko eskubide nagusietako bat da; Trans eta LGTBIQA+ pertsonen eskubideak.

4. Eskubide horiek hainbat esparru sozialekin eta erakundeekin lan eginez lortzen dira

1. Indarkeria matxistatik gabeko bizitzak
2. Askatasun sexuala eta erreproduktiboa erdigunean
3. Abolizionismorantz
4. Indarkeria instituzionala: ama babesleak babestuz
5. Indarkeria digitala: gorroto misoginorik gabeko sare sozialak
6. Hezkuntza sexuala: argia, erdi egirik gabe

7. Gure gorputzen eta bizitzen jabe izatea, abortua askea, legezkoa, segurua eta doakoa
8. Indarkeria estetikoak, gordofobia.

5. Zaintzarako eskubidea

Nafarroan, zaintzaileen % 80-90 inguru emakumeak dira. Horrek esan nahi du, oro har, emakumeek beren gain hartzen dituztela mendeko pertsonen zaintza gehienak autonomia-erkidegoan. Horrek esan nahi du, halaber, emakumeek denbora gehiago eta ahalegin handiagoa eskaintzen dizkietela zaintza-lanei, bai etxean, bai lanaren esparruan.

Zaintzak, beraz, feminizatuak izan dira eta dira historikoki, familien arduraren nagusia izaten jarraitzen dute, doan zaintzeko denborarekin edo zaintzak erosteko diruarekin (etxeko enplegua edo merkatuko zerbitzuak). Gure sistema sozioekonomikoaren barruan bigarren mailan daude, eta erantzukizun pribatu eta feminizatutzat jotzen dira; zaintzak demokratizatzeko, goitik behera berrantolatu behar da egitura, eta guztiok hartu behar gaitu bere baitan, bai gizabanako gisa bai kolektibo gisa.

Kontuan izan behar dugu zaintzak haurtzarotik hasi eta hil arte egiten direla, eta horrek leku handia hartzen duela gure bizitzan.

6. Kontziliaziorako eskubidea

Nafarroan lana eta familia uztartu ditzaketen pertsonen ehunekoak zehazki zein den jakitea zaila bada ere, emakumeen kasuan oso altua da bi arloak orekatzeko arazoak dituztenen ehunekoak. Mendetasuna duten senitartekoak zaindu behar direnean, emakume landunen % 61,2k egunean 3 ordu edo gehiago ematen ditu horretan, eta gizonen kasuan, berriz, ehuneko hori % 26,7ra jaisten da.

Zaintza-eskubideak aintzat hartzen du zaintzak ez duela ondorioz gaitortasun eragin behar, ezta lan-aukeren galerarik, prekarizaziorik edo norberarentzako denbora gabe gelditzerik ere. Emakumeok aitortzen gabe lanaldi bikoitzak eta hirukoitzak hartzen ditugu gure gain, eta, horren ondorioz, ezinezkoa bihurtzen da lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea.

Ilde horretatik, enpleguan eta bizitza pribatuan eta familia-bizitzan denboraren erabilera birbanatzearen aldeko defentsa politikoa egiten dugu Ahal Dugu alderdian, uste baitugu beharrezkoa dela gure gizartearen eraldatzeko.

Benetan feminista den sistema ekonomiko eta sozial batek aitortzen du aisialdirako eta norbere burua zaintzeko eskubidea funtsezkoak direla gure bizitzaz osorik baliatzeko; bizitza horiek duinak eta zorientsuak izatea merezi dute.

7. Pobreziaren feminizazioaren kontra

Pobreziaren feminizazioa desberdintasun horien emaitza da, eta aberastasuna birbanatzea da egoera hori iraultzeko modu bakarra, ez baita justizia ekonomikorik egongo emakumeentzat, justizia sozialik gabe.

Nola bukatu pobreziaren feminizazioarekin? Modu horizontalean, "kristalezko sabaia" apurtzeaz gain, gizartearen erantzukizuneko postu guztietan behar da parekotasuna; era horretara, emakumeak

egongo dira erabakiak hartzen diren guneetan, hobekien ordaindutako eta gizarte-aitorpen handieneko sektoreetan, hala nola sektore teknologikoak, industrialak edo politikoak.

Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren (IGI) igoera historikoa bultzatu dugu, eta, modu berean, pentsioetan dagoen genero-arrakala ezabatzearen aldekoak gara Ahal Dugu alderdian, eta, horiek konstituzioaren bidez blindatzeaz gainera, gutxieneko pentsioak eta kotizazio gabekoak igotzearen alde gaude; pentsio horien hartzaile dira gure amak eta amonak eta lan-prekarietatearen bitartez gu denok, egunero, mantendu gaituzten emakumeak.

8. Feminismoa eta ekologia

Desberdintasun- eta diskriminazio-egoerak direla-eta, emakumeak ahulagoak gara klima-aldaketaren ondorioen aurrean, baina, era berean, funtsezko aldaketa-eragileak gara lurraldeen iraunkortasunari begira.

Bizi garen espazioek eta bertan bizitzeko moduek mugatzen dituzte gure autonomia- eta ongizate-aukerak, erantzun feministak eta kolektiboak behar ditugu gure etxeekin, hiriekin, eremu komunekin eta lurraldearekin eta bertako biodibertsitatearekin dugun harremana birpentsatzeko; Ahal Dugu alderdian ez dugu beldurrik espazio horiek berrasmatzeko eta bizitza erdigunean jartzeko.

Emakumeak gara kaltetuenak, kezkatuenak eta baita prestatuenak ere, baina ez gaude egon behar dugun tokian, klima-aldaketa iraultzera edo suntsitzen ez jarraitzera eramango gaituzten helburuak lortzeko.

9. Feminismoak etxebizitzaren krisiaren aurrean

Etxebizitzaren krisiak ez die pertsona guztiei berdin eragiten, talde batzuetan etxebizitzaren arazoak benetako drama dira: prostituzioan aritzen diren emakumeak, alokairua ordaindu ezin duten baliabide gutxiko emakume alargunak, seme-alabak bakarka dituzten emakumeak (hainbat arrazoiengatik), migratzaileak, migratzaile ez diren desplazatuak, eta, horrela, hainbat eta hainbat. Zainketen gainkarga beti dago emakumeen esku eta lanaren prekarietateak modu berezian egiten gaitu zaurgarri; testuinguru horretan, emakumeok gara, gure interseksionalitate guztietan, etxebizitza duin bat lortzeko eta horri eusteko oztopo gehien ditugunak.

Horregatik, Ahal Dugu alderdian hitz egiten dugu genero-ikuspegia duten etxebizitza publikoko politikez, eta etxeak bizitzeko direla esaten dugunean, eta ez espekulatzeko, indarkeria matxistaren biktima diren eta etxeak espazio seguru ez dituzten horiengan ere pentsatzen ari gara, 2020an covid-19aren pandemian gertatu zen bezala.

10. Feminismoak beste hiri eta herri batzuk irudikatzen

Ahal Dugu alderdian uste dugu funtsezkoa dela hiriak eta herriak hirigintza feministatik abiatuta birplanteatzea, hau da, espazioa jasangarritasunaren arabera berrantolatuko duen genero-ikuspegia duen hirigintzatik abiatuta.

Zer behar dugu?

Hiriak, auzoak, herriak, bizikidetzeta-espazio seguruak, kaleak, plazak, kalezuloak eta bide publikoak, oro har, ondo argizatuta egotea eta hiri-mugikortasuna arina eta segurua izatea. Kalitatezko garraio publikoa nahi dugu, seguru sentiaraziko gaituena. Oinarrizko eskubideak bermatuko dituzten politikak nahi ditugu.

Hori lortzeko, herritar guztiengan pentsatu behar da, ezinduegan, haurren, nerabeen eta adinekoen.

11. LGTBIQA+ feminista

Ez dugu LGTBIQA+ pertsonen ehunekoari buruzko datu zehatzik Nafarroan, baina datu horrek ez du berebiziko garrantzirik, izan ere, talde ugaria izan edo ez, haiekin gaude gu. Funtsezko informatzaileen bidez bildutako informazioak erakusten du LGTBI pertsonen ikusgaitasuna hainbat motatako jazarpen-edo eraso-egoeren eragile dela. Jendaurrean LGTBI pertsona gisa agertzeak arriskuan jartzea dakar ondorioz, eta areagotu egiten du gizatxarren eraso jasateko arriskua.

Feminismoa indar eragile nagusietako bat izan da, eta oraindik ere bada, LGTBIQA+ eskubideen aldeko borrokan. XIV. legegintzaldian eta Ahal Dugu alderdia Berdintasun Ministerioaren buru zela, aurrerakuntza nabarmenak izan dira, mundu osoan aitortuak. Hala ere, erreakzio ultrakontserbadorea sortu da mundu mailan, lortutako lorpenak irauli nahi dituen.

Ahal Dugu alderdiaren ustez, sexu-, genero- eta adierazpen-identitateen aniztasuna ondasun komuna da.

12. Trans legea eta LGTBI eskubideena

Espania giza eskubideen abangoardian jarri da LGTBIQA+ kolektiboa aitortu duelako eta konbertsio-terapiak debekatu dituelako; era horretara, genero-autodeterminaziorako eskubidea bermatu du. Hala ere, borroka ez da 4/2023 Legearen onarpenarekin amaitzen: haren ezarpenak erronka izaten jarraitzen du erakundeen erresistentzien aurrean.

Nafarroan 8/2017 legea dugu, hiru alderdi hauetan hobetzen duena Estatuko legea:

Ez-binarismoaren aitortpena; Osasunaren arloko laguntza unibertsala Trans pertsonentzat; eta Genero-autodeterminaziorako adina gutxitzea. Hiru alderdi horiek borrokan bitartez lortu ziren Nafarroan, eta baita legearen osaeran parte hartzearen bitartez ere.

Harro egoteko moduko legearen aplikazio eraginkorra eskatzen dugu. Horrek esan nahi du, hasteko, administrazioaren esparruko oztopoak ezabatu behar direla erregistro-aldaketan; izan ere, praktikan, zenbait Trans pertsonak oraindik ere zailtasun burokratikoak dituzte beren izenaren eta sexuaren zuzenketa egiteko erregistroan.

Legeak ezartzen du LGTBIQA+ fobiaren biktimen arretarako protokoloak sortu behar direla zerbitzu publikoetan, polizia-etxeetan eta epaitegietan, baina horiek aplikatzen ez diren bitartean, diskriminazio- eta babesgabetasun-egoerak betiketzen jarraituko du.

Gizartea eraldatu behar dugu, halako eran non pertsona guztiok duintasunez eta gure eskubideak aitortuta ditugula biziko garen; familia desberdinek babesa eta bermeak behar dituzte, ez oztopo burokratikorik, ezta diskriminazio instituzionalik ere.

Pertsona horienganako diskriminazio- eta gorroto-rola aldatzeko, ezinbestekoa da gure ikastetxeak gune seguruak izatea, eta hori bateraezina da erlijio-hezkuntzako eta hezkuntza segregatuko ereduekin, eta ezinbestekoa da orobat LGTBIQA+ haurrak babestea, trans haurrak bereziki, indarkeriaren eta familia-bazterketaren aurrean.

13. Feminismoa eta arrazakeria

Nafarroan, 133,115 migratzaile daude, hau da, biztanleria osoaren % 19,5. Oraindik ez dugu informazio zehatzik Nafarroan arrazializatutako emakumeen kopuru zehatzari buruz. Populazio arrazializatuari buruzko datuak aurkitzea zaila da "arrazakeriaren" definizioa konplexua delako eta ez dagoelako erakundeek jasotako datu espezifikorik.

Arrazakeriak eta genero-diskriminazioak eragin nabarmena dute emakumeengan. Emakumeek erronka erantsiei aurre egin behar diete, emakume izateagatik eta pertsona arraziatu izateagatik, indarkeria matxisten aurrean kalteberagoak direlako, sexu-salerosketaren eta -esplotazioaren aurrean arrisku handiagoa dutelako, baita prekarizazioari eta lan-esplotazioari dagokionez ere. Ahal Dugu alderdian bat egiten dugu feminismoa arrazakeriaren aurkakoa izango dela eta, hala ez bada, ez dela izango kontsignarekin. Ezinbestekoa da gure gizarteko arraza aniztasunaren ordezkari direnek jasaten dituzten desberdintasun politiko, ekonomiko eta sozialen aurka lan egitea. Hala jasotzen dugu Ahal Duguren Arrazakeriaren Aurkako Dokumentu berrian.

Ahal Duguko feministok argi dugu: ez dago emakume legez kanpokorik, eta gogor egingo dugu lan gure borroka feministan ikuspegi antikapitalista sendotzeko.

14. Bakearen aldeko feminismoak.

Gerrek zorigaitza eta heriotza dakarte. Horregatik, armen eta gerren aurrean intsumisotzat jotzen dugu geure burua, emakumeok bizia ematen dugulako, hau da, heriotzaren kontrakoa.

Ahal Dugun zerbait bagara, feministak eta internazionalistak gara. Justizia sozialaren ikuspegi globala dugu, eta borroken interseksionalitateari eta herrien arteko elkartasunari begiratzen diogu.

Horregatik, leku pribilegiatuan gaudela jabeturik, politika inperialistak eta militaristak justifikatzen duen feminismo neoliberal eta eurozentrista baztertzen dugu, eta munduko desberdintasunen sustrai globalak ikusarazten dituen feminismoaren aldeko apustua egiten dugu. Gaur egun, inoiz baino gehiago, Bakea lehentasunezko zereginetako bat da guretzat; horregatik, bakearen aldeko gure borroka ezin da bereizi patriarkatuaren eta kapitalismoaren aurkako borrokatik, horiek baitira munduko ongizateak izan beharko lukeenaren erraiak erabiltzen dituztenak.

15. Matxista izateari utzi nahi diogunontzako feminismoa

Hitzarmen kolektiboetan, legeetan, bandoetan, lehiaketa instituzionaletan, kirolean... matxismoa agerikoa da oraindik ere, eta horri aurre egin behar diogu gizarte-mugimenduen eta erakundeen eskutik, ikusten ez bada ere, hor jarraitzen du!

Gizonezko helduak izan gaitezke feministak? Jakina. Gainera, feminismoa guztiona da, denak baikara Gizadiaren parte, hau da, gizonak, emakumeak eta LGTBIQA+ pertsonen unibertso handi hori.

Argi eduki behar dugu feminismoaren definizioa; izan ere, nazioarteko komunikabide handiek feminismoari buruzko ideia faltsuak eta gezurrak zabaltzen dituzte, pribilegio matxistei eusteko eta haiek babesteko baino ez.

Zer da antifeminismoa? Gizonen nagusitasun-jarrerara emakumeekiko, eta emakumeen aurkako jokabide edo jokabide diskriminatzaileen bidez gauzatzen da. Jokabide horiek izan daitezke sexistak, psikologikoak eta, besteak beste, klase altuko gutxiengo batek, gizon boteretsuek, gainerako gizonei agintzen dizkiete, emakumeak eta LGTBIQA+ak, batez ere mutiko edo neska ez diren haurrak, maneiatzeko. Komunikabide handien, testuliburuen argitalpen-taldean eta ikus-entzunezko ekoizpen-enpresen bidez egiten dute. Har dezagun kontuan.

Egia da, feminista ez izateko hezi gintuztela, baina horrela izan behar al du beti? Erantzun laburra: Ez.

Erantzun luzea: Banaketa diskriminatzaileak, neskak edo mutilak izan kontuan hartuta. Mutikoak ikasi egin behar zuen, probetxuzko zerbait izateko; neskei, aldiz, ez zitzaion galdetu ere egiten. Mutikoek soinekoak, makillajea edo panpinak atsegin bazituzten, familiaren gaitzespena jasotzen zuten, baita jipoi izugarriak ere.

Familiak, lagunek eta eskolak egin zuten gainerakoa. Hori hala izan zen, baina haren ondorioak ez dira betiko. Estereotipo maskulinoari men egiteko betebeharra, ez nabarmentzea, zeresanik ez ematea... Askatasuna al da hori, benetan? Ez.

Zer jarreraren bitartez onartu behar dugu gizonok geure burua feministatzat? Kontsigna matxistei men egin gabe, geure jokabideei buruz gogoeta eginez, hainbeste maite dugun bikotekide hori, interes sexualaz gain, maite dugun pertsona delako interesatu behar zaigu, eta horren arabera jardun behar dugu berarekin. Barrea eta negarra eragiten badigu ere, gizon izateagatik ez dugu harekiko errespetu faltaren lerroa gurutzatu behar. Utzi egin behar diegu errespetuaren eta erakarpen sexualaren arteko transakzioei, ez dira gauza bera, eta nahastea ere ez zaigu komeni. Ezkontza batean edo dibortzioan maitasuna eta dirua nahastea bezain txarra da.

Elkarrekiko errespetua, aukera-berdintasuna, seme-alaben hazkuntzan parte hartzea, familiaren esparru barneko zein kanpoko zaintza-lanak banatzea, hori da feminismoaren altxor nagusia!

Noski! Baina, gizon gisa, ez badut pribilegiorik galdu nahi, Zergatik izan behar dut feminista? Buruaskia izateko ekonomikoki eta etxean, zaintzeko eta zaindua izateko, negar egitean kontsolatua izateko, zorientzua izateko eta bizitza biren artean partekatzeke, biak berdin.

16. Feminismoa gaur egungo gazteengan?

Panorama konplexua da, gizonezko gazteen artean feminismoaren aurkako joera areagotu egin delako; eta hori ez da gertatu etxean eredu hori ikusi dutelako, baizik eta sare sozialengatik, desinformazioagatik eta gizartean errudunak bilatzeagatik, emakume feministen aurrerapen handia dela-eta.

Benetan maite badut, jelskorra izan behar dut? Berari gustatzen zaion guztia egin behar dut? Mugikorrean ikusten diren sexu-jardun arraro horietan, atsegin eman behar diot? Zuk gozatzen

baduzu, bai. Bestela, ez. Zenbat kalte egin zuen muturreko matxismoan oinarritutako film hark, "Greyren 50 itzalak" eta haren sekuelak.

17. Feminismoa edo lurralde-identitatea?

Hizkuntza eta feminismoa defendatu nahi ditugu. Hizkuntzak eta adierazteko moduak duten garrantzia abiapuntutzat hartuta, kontu handiz ibili beharko dugu hitz egokiak erabiltzeko. Ez du garrantzirik zer hizkuntza erabiltzen den, behar bezala erabiltzen bada, diskriminatu gabe; autonomia-erkidego askok dute gaztelania ez den beste hizkuntza bat, eta guztietan daude gizon eta emakume feministak. Ez gaitu hizkuntzak banatzen, hitz bakoitzari ematen diogun esanahiak eta erabilerak baizik. Ez bata, ez bestea. Hizkuntza eta feminismoa ez dira nahastu behar, mundu desberdinak dira; azken finean, antifeminismoa edozein hizkuntzatan egin daiteke, eta, beraz, hizkuntza bat lehenesteak feminismoa ezabatzeko, ez dio gizarteari ezertan laguntzen edo hura babesten.

